

Eskaintza osoa eta izena emateko agiriak **Erakundearen web-orrian** ikus daitezke

Abian da berriro Kutxabanken Gaztedi programa, Aste Santuko robotika eta bela ikastaro berrieekin

- **Jardueren plaza-kopurua eta segurtasun-neurriak egokitu dituzte, osasun bermeak indartzeko**
- **Izena eman nahi dutenek Kutxabank Taldearen interneteko atarian egin ahal izango dute, 'Familak' atalean**
- **Programak 8 eta 18 urte arteko neska mutilei zuzenduak dira, eta adin tarte bakoitzaren lehentasunei egokituta daude**

2021eko martxoaren 18an. Kutxabanken Gaztedi Programak abian da berriro, Aste Santuan ikastaro berriak eskainiko baititu, iaz jarduera gehienak pandemiarengatik eten eta gero. Gazteenei zuzendutako jarduerak makina bat berrikuntza izango dute, tartean bela ikastaroak.

Jose Luis Ugarte bela eskolak 8 eta 17 urte arteko gazteentzako ikastaroak eskainiko ditu, Aste Santuan ere itsasoan goza dezaten. Eskola honek urtean 1.500 lagun inguru hartzen ditu, eta bere prestakuntza programak adin eta maila guztietarako ikastaroak eskaintzen ditu, ontzi desberdinetan, bai eta egokitutako bela-ikastaroak, klase partikularrak edota titulazioak lortzeko ikastaroak ere.

Datozen oporretako beste ikastaro berrietako bat **Eureka! Zientzia Museoak** antolatuko du, teknologia-koloniak hain zuzen ere. Jakin-nahi desberdinak dituzten gazteei zuzenduko zaizkie, jolas egiten duten bitartean ikas dezaten. Tailer zehatzak izango dira batzuk, 'X Misioa', 'Astronautek bezala entrenatu', 'Zientzia Txokoa' edo 'Science txoko', adibidez. Hauek haur eta gazteen artean zientzia, teknologia, ingeniaritza, artea eta matematikak sustatzeko helburua duen Doplayko profesional talde batek emango ditu.

Jarduera guztiek **plazen kopurua egokitu dute eta beharrezko osasun-neurriak** hartu dituzte bermeekin egin ahal izateko. Gehienak aurrez-aurrekoak izango diren arren, zenbait kanpus teknologikok online egiteko aukera ere emango dute.

Jardueren bilatzailea

Jarduera hauei guztiei buruzko informazioa, bai eta izena emateko aukerak ere, Kutxabank Taldearen interneteko atarian ikus daitezke, 'Familiak' atalean.

Atal honetan bertan **bilatzaile berria** jarri da, familiek nai dituzten jarduerak errazago aurki ditzaten. Bilatzaileak lurraldearen, hizkuntzaren, adinaren, prezioaren eta dataren arabera emaitzak aurkitzeko aukera ematen du. Horrez gain, egin ahal izango diren jardueren irudiak erakusten ditu, txikienen interesen araberako programak aise aurkitu ahal izateko.

Egungo egoerarengatik, oraindik ezin izan dira eskaini udako Gaztedi Programaren jarduerak, egonaldi osoekin eta atzerriko hizkuntza-ikastaroekin.